



НИ
КА

1615

BALEA KOLPATU ETA

I auna geure arte baño gehiago zureaz,
Balea zauritu dugu arpoñaren kolpeaz.
Arren bada egiguzu (Iaun puxanta) grazia,
Sarri gelditzeko arrain itsasoko handia.
Gutarik garabik zaurtxu gabe bere indarraz,
Segadetan dabillala buztan edo bulharraz.
Edo xalupa irauli gabe gillaz gañera,
Edo berekin eraman gabe urtan behera.
Arren begira gaitzatzu gaitz hauk guztietarik,
Eskerra diezazugun itzul lehorrerarik.
Irabazia da handi, perilla ere handia,
Begira diezazugu prinsipalki bizia.



Benoit Lamerain



Formazioz txistularia, instrumentu hau hamar bat urtez Xavier Heutyrekin ikasi du eta aldi berean, *Getaria* dantza taldean jo du. Bertan, Pascale Lascano koreografoaren ezagutza egin du eta harekin *Zarena Zarelako* dantza konpainia sortu dute, 2007. urtean. Elkarrekin, ikusgarri ezberdinak idatzi eta taularatu dituzte; horien artean, *Urraska*, bi aldiz Baionako antzokian eman dena, eta *Ainarak* ere, *Ekimen* sariaren irabazlea, hogeitabi aldiz Euskal Herrian joa, baita Kalifornian ere.

Gitarra eta buzuki irlandarra ikasi eta, 2009. urtean *Leinua* eta 2011n *Etorkizuna kontzeptuak* konpainietako musikari taldeetan. Haiekin, Euskal Herriko hamabost bat elizatan emana izan den *Sakratua* eta Maurice Ravel musikagilearen omenez idatzi *Ravel Jauna* ikusgarrientzat, konposizioan eta musika zuzendaritzan parte hartu du. Berriki, Julien eta Beñat Achiaryrekin elkarlanean aritu da, Gerezien Denbora pastoralaren musikarentzat, ikuskizun honek Baionako Lauga salan 2200 ikusle bildu dituelarik.

Bere ibilbidean zehar, tokiko artista ugari gurutzatu ditu, hala nola, Koldo Amestoy, Julien Corbineau, Claude Iruretagoyena, Christian Larralde, bertzeak bertze, eta esperientzia hauek azkarturik, 2012. urtean Maitena Duhalderekin, *Hinka* musika tradizionala jotzen duen taldea osatu du.

Maitena Duhalde

Lapurtar kantari eta musikari gaztea, Maitena Duhalde gipuzkoar trikitilariekin hasi zen soinu txikia eta panderoa ikasten: Jose Luis Etxeberria «Xapre», Mamen Maltzeta edo berantago Iker Goenaga irakasleekin. Lehen urratsak karrikako musikari bezala egin ditu: Itsaso Arzallusekin bikotea osatuz, Euskal Herriko eta Landesetako hainbat besta animatu dituzte.



Zalu, instrumentu hauen irakasten hasi da Uztaritze, Donapaleu, Urruña, Bidarte eta Donibane-Garaziko musika eskoletan. Haren formakuntza osatzeko eta kantuarien lantzeko helburuarekin, Euskal Itsas hegiko kontserbatorioan, Beñat Achiary kantariaren musika tradizionalako klasean sartu da, eta 2012. urtean, Musika Ikasketen Diploma lortu du.

Urte horietan, ingurumen ezberdinetatik etorri artistekin eszena partekatzeke parada izan du, hala nola Carlo Rizzo, Bernard Lubat, Jean-Christian Irigoyen, Morgane Roussel edo Mohamed Boujalalekin. Dantza ikusgarri zenbaitetan parte hartu du musikari bezala, *Zarena Zarelako*, *Etorkizuna Konpainia*, *Leinua* eta *Getaria* bezalako dantza konpainietan. Proiektu horietan Benoit Lamerain ezagutza egin du eta elkarrekin *Hinka* musika taldea osatu dute.

Musika zalea eta euskararen barietazioan berezitua, gaur egun trikitixa irakaslea da, baita linguistikan doktoregaia ere.

Matthieu Haramboure



Musikari, produktore eta moldatzailea, Matthieu Haramboure bere musikaren nortasuna eragin desberdinen bidez eraiki du. Familia musikazale batean sortua eta dantzari tradizionala izana, erritmoaren zaletasunak baxu elektrikoaren ikasteko gogoia piztu dio, manera autodidakta bezala. 90. hamarkada erdian, Baionako kontserbatorioko kontrabaxuko klasean bere hezkuntza musikala osatu du, baina analisisia eta musika idazketa klaseek ere interes bizia piztu diote.

Berez sartu da beraz tokiko sorkuntza taldeetan, *Txakun* eta *King Mafrundi* bezala, lehenen musika tradizionalan bermatua dena, bigarrena aldiz, karibetar esentziakoa eta deblauki modernoa. Alde sortzaile hori beti jarraituz, *Doctor Deslai*, *Briganthya* edo *Bidaia* bezalako formazioetan sartu da.

Paraleloki, instrumentista bezala, euskal musikagintzako artista famatuenetarik zenbaiten laguntzeko parada izan du, hala nola, Peio & Pantxoa, Gorka Knörr, Urko, Gontzal Mendibil, Txomin Artola, Anje Duhalde, Mixel Ducau (eta lehenago aipaturiko biak *Errobi* taldearen barnean), Niko Etxart, Iñaki Salvador, Iñaki Dieguez, Xabi San Sebastian...

Soinuak eta teknologia berriak erakartzen dute eta horregatik 2000 urteen hastapenean ikus-entzunezko ikasketak hasi eta musikari lanbidearen alderdi «ekoizlera» heltzeko bidea eman dio. Lehen urratsak estilo desberdinetako albumekin eman ditu, hala nola, *Trikizio*, *Briganthya*, *Maitips* (Katalunia), *AYLé* edo *Yanina*.

Ustekabean, 2014ko udako kontzertu baten soinu hartze denboran, Benoit Lamerain eta Maitena Duhalderen ezagutza egin du. Beraien pertsonalitateak eta proiektuak zalu erakarririk, aste batzuk berantago *Hinka* taldeko kide bilakatzea erabaki du.

2012an sortua Benoit Lamerain eta Maitena Duhalde musikari lapurtarrek bultzaturik, Hinka taldeak bere estetika musikala ezagutarazi du, baita bere lan artistiko eta diziplina anitzekoa ere, batez ere jadanik sarean diren bi bideokliparen bidez: *Begira* (2013) eta *Versus* (2014). Hinka taldeak bere bidea segitzen du, gaur egun hiru kidez osatua delarik.

Hinka taldea geografikoki Lapurdi itsasaldean erroztatua da. Izan ere, «Hinka» izena ez da halabeharrez hautatua izan, Donibane Lohizune eta inguruko herrietan «urrats» zentzua hartzen baitu (ikus P. Lhande hiztegia). Musikari hauek euskal dantza tradizioaletik datoz eta talde zein dantza eta musika proiektu desberdinetan parte hartu dute.

Esperientzia eta ibilbide desberdinetakoak izanik, dantzatzeko musikaren sentsibiltateak biltzen ditu bereziki. «Tradizionala» deritzon euskal musikaz eta eragin modernoagoez ere elikaturik, hirukote honek gaurko Euskal Herriko musika sustatu nahi du, baita bere kolorea ekarri ere, Iparraldeko sentsibiltate propioa gordez. Inspirazio tradizionaleko musika garaikide hau, Euskal Herriaz haratago ere partekatzeko nahia dute.




Argazkiak : Cristian Martinez Perez



Eskainiak zitzaizkion musika doinu eta kantuen bidez ardatz gisa emaztea zuen *Emaztez* kontzertuaren ondotik, 2015ko udan, taldeak duela justu 400 urte gure eskualdeko biztanleak hunki zituen gertakari historiko baten irakurketa artistikoa proposatuko du.

Ur handiko arrantza, balearena bereziki, Ternuako uretan eta ondotik islandiar

uretan, euskal itsasaldeko portuentzat aktibitate ekonomiko joria izan zen. Islandieraren eta euskararen pidgin moduko bi glosario atzeman dira gainera Islandian, arrantzale eta tokiko bizilagunen arteko erlazio komertzialen emaitza, segur aski. Baina gaur egun, gertakari tragiko bat gaizki ezagutua da: 32 euskal balea arrantzalaren sarraskia Islandia iparraldeko fiordo batean, 1615an. Urte berean, Donostiatik hiru ontzi abiatu ziren eta Iparraldeko uretan haien arrantza kanpaina eraman zuten, Danimarkako erregearen debekuak debeku. Buruilean, itzultzeko bezperan, ikaragarriko ekaitz batek ontziak hondatu zituen. Eskifaia edo tripulazioa bi taldetan bereizi zen eta zati bat Æðey deitu uhartean aterpetu zen, non eta Ari Magnusson gobernadoreak haien hiltzeko agindua eman zuen. Jon Godmundsson «jakintsua» deitu izan den islandiarrak gertakari ilun eta ikaragarri honen berri idatziz eman eta bertan gobernadorearen jarrera salatu zuen.



Charles Milstanen "Eau-forte" edo "Ur azkarrak", Duhamel du Monceau obrarentzat. *Traité Général des Pesches / Arrantzaren hitzarmen orokorra*, 1782.

Hinka taldeak proposatu kontzertua, Itxaro Bordak idatzi euskal testuez osatua izanen da. Idazleak bere obraren frantsesezko itzulpena ere egin du. Poema bilduma honek, oraina eta iragana uztartzen ditu, duela 400 urte euskal arrantzaleek bizi izan duten gertakari tragikoaren baitan murgilduz eta Islandiaz maitemindua den idazle honen testu autobiografikoez josirik. Poema hauek, gehienak kantatuak, Hinka taldeko kideek musikatuko dituzte. Sorkuntzak, baina birmoldatzeak ere bai, Lilja melodia adibidez, hau da, XVII. mendean bildua izan den musika Islandiarra. Kontzertuetan, liburuxka bat publikoaren esku emanen da, non eta, besteak beste, Itxaro Bordaren testu osoak lau hizkuntzetan itzulirik irakurtzen ahalko diren. Txomin Heguy antzezle eta taula zuzendariak, sorkuntza musikal garaikide honen espazio antolaketaren kargua hartuko du. Euskal kultur erakundeak eta Pantxoa Etchegoin bere zuzendariak sorkuntza hau aktiboki sustengatzen du.



Islandiaren mapa eta bere uretan kausitu animaliak, Abraham Ortelius mapa egile nederlandarraren eskutik. *Islandiako liburutegi nazionala*, 1590.

ITSASOZ BAT

Hego haizeak buhatzen du etengabe gauean
Kurloak pasatu dira karrankaz lur zilarrean
Neguari ihes eta hegaldaz oltze lauean
Elur galerna garratzak utziz behin iparrean
Iraganeko odola dela altxor biharrean.

Hiztegiak hostokatuz eta olo saltsa janez,
Baionan iratzartzen da Isafjordüren bezala:
Itsasoen erraldoiak, esku-zabala izanez,
Urtzen du gure harreman hormatuaren gezala.
Urruneko batasuna kanta honek sor dezala!

Erraten digute beti garela jende apalak,
Hizkuntza apurra omen dugu eskas ezpainetan
Baina daldaraz dabiltza zaurituriko azalak,
Bidaiaari lotzen dela laguna uhin gainetan
Egungo besarkadaren berotasuna zainetan...



HINKA

Kontaktuan sartzeko

Iparraldetik: Benoit 06.26.89.10.77

Hegoaldetik: Maitena (0033)626.26.59.84 – Matthieu (0033) 678.74.94.47

Facebook: <https://www.facebook.com/pages/Hinka/135925769902947>

Helbide elektronikoa: hinkataldea@gmail.com

Talde teknikoaren kontaktua

Laurent Ascarain: 06.15.45.08.44 – ascarainsono@sfr.fr

Bideoklipen loturak

Begira: <https://www.youtube.com/watch?v=gJAVnFPZFiA>

Versus: <https://www.youtube.com/watch?v=mnuMcycoSao>

